

PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2028

EZKERRALDE-ENKARTERRI
GURUTZETAKO ESI



Osakidetza

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
OSI EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

AURKIBIDEA

01 EGITEKO METODOLOGIA _____ 07

1. FASEA. Entzute aktiboa eta behaketa
2. FASEA. Hausnarketa eta formulazio estrategikoa
3. FASEA. Zehaztapena eta lehentasunak ezartzea
4. FASEA. Hedapena eta komunikazioa

02 XEDEA, MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK _____ 12

Xedea
Misioa
Ikuspegia
Balioak

03 ERRONKA ESTRATEGIKOAK _____ 15

Gobernantza aurreratua
Parte-hartzea, humanizazioa eta aniztasunaren arreta
Egungo eta etorkizuneko profesionalak
Osasun-emaizak hobetzea
Hurbileko arreta irisgarria
Espezializazio eta erreferentzialtasun handia

04 ERRONKEN HEDAPENA HELBURU ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAN _____ 18

Gobernantza aurreratua
Parte-hartzea, humanizazioa eta aniztasunaren arreta
Egungo eta etorkizuneko profesionalak
Osasun-emaizak hobetzea
Hurbileko arreta irisgarria
Espezializazio eta erreferentzialtasun handia



GERENTZIAREN GUTUNA

Plan Estrategiko honek ESlaren etorkizunerako ibilbide-orria ezartzen du, eta osasun-arretako eredu aurreratua, irisgarria eta pertsonarengan ardaztuta finkatzea ahalbidetuko duten lehentasunak, erronkak, helburuak eta proiektuak definitzen ditu.

Etengabe eboluzionatzen ari den eta erronka handiak dakarzkigun ingurune honetan, hala nola biztanleriaren zahartzea, medikuntza pertsonalizatuaren aurrerapena, eraldaketa digitala eta asistentzia-eredu integratuagoen beharra, plan honek erantzuna eman nahi die pazienteen, profesionalen eta gizarte osoaren premia berriei.

Plana egiteko, prozesu zorrotz bati jarraitu zaio, entzute aktiboan, hausnarketa estrategikoan eta interes-taldeek parte-hartzean oinarrituta. Joera globalak, jarduera-datuak, pazienteen eta profesionalen esperientziak eta Osakidetzaen irizpide estrategikoak aztertu dira, egungo errealitatearekin eta etorkizunerako itxaropenekin bat datorren ikuspegia bermatzeko.

Partaidetzako eta elkarlaneko prozesu sakona izan da, eta gure erakundea osatzen duten pertsona guztien inplikazioa ekarri du, bai eta pazienteen, herritarren eta gainerako interes-taldeen beharren eta igurikimenen entzute aktiboa ere.

Are xeheago:



Diziplina anitzeko lantaldeak inplikatzeari

Hainbat ezagutza-profil, kategoria, rol eta esperientzia integratuz, gogoeta-prozesua aberasteko eta ikuspegi holistikoa bermatzeko. Hainbat diziplinatako osasun-profesionalak, administrariak, pazienteak, komunitateko ordezkariak eta beste interes-talde garrantzitsu batzuk aktiboki inplikatu ditugu. Prozesu horretan 300 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.



Tresna berritzaileak

Hausnarketa estrategikorako tresna berritzaileak txertatu ditugu, hala nola SCAMPER tresna eta Future Thinking metodologia, besteak beste, aurrean ditugun erronken eta aukeren ikuspegi integrala eta sortzailea lortzeko. Prozesu horretan zuzendaritza-taldeak parte hartu du.

Prozesu horren emaitza plan estrategiko sendo eta handinahia da, pazientea erdigunean jartzera eta gure zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna etengabe hobetzera bideratua.

Hauek dira gure planaren funtsezko zutabeak:

Arretaren bikaintasuna

Konpromisoa hartzen dugu kalitate handieneko osasun-arreta emateko, segurua, pertsonalizatua eta paziente bakoitzaren beharretan zentratua.

Garapen profesionala eta langileen ongizatea

Gure giza taldearen balioa aitortzen dugu, eta haren garapen profesionala eta ongizatea sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Berrikuntza eta teknologia

Teknologia berritzaileak txertatzearen eta gaixotasunen prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua hobetzeko ikerketa sustatzearen aldeko apustua egiten dugu.

Lankidetza eta aliantzak

Beste erakunde sanitario, erakunde akademiko eta komunitateko elkarteekiko lankidetza sustatzen dugu, gure zerbitzuen irismena handitzeko eta herritarren osasuna hobetzeko.

Jasangarritasuna eta efizientzia

Baliabideen erabilera optimizatu eta gure erakundearen jasangarritasuna bermatu nahi dugu, arretaren kalitatea arriskuan jarri gabe.

Horren emaitza izan da sei erronka estrategikotan egituratutako plan bat. Erronka bakoitzak helburu argiak eta proiektu espezifikoak ditu, eta osasun-sistema berritzaileago, efizienteago eta gizatiarrago baterantz aurrera egitea ahalbidetuko dute.

Dokumentu honek, jarduketa-esparru bat ezartzeaz gain, kudeaketa-eredu bizkor eta dinamiko baterako oinarriak ere ezartzen ditu, etengabe eguneratu eta inguruneko aldaketetara egokituko dena.

Mariluz Marqués González

Ezkerralde Enkarterri Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea





01

EGITEKO METODOLOGIA

01. EGITEKO METODOLOGIA

Otto Scharmer-en U teoria erabili dugu. Teoria horrek eraldaketa-prozesu sakon bat proposatzen du, bai maila indibidualean, bai erakunde-mailan. U teoriak laguntzen dizu ulertzen non zauden aldatzea erabakitzen duzun edo behar duzun unean, iruditutako etorkizunera ahalik eta ondoen iristeko.

Idea honetan oinarritzen da: beste etorkizun bat sortzeko, gure asmo sakonenarekin lotu behar dugu, eta etorkizuna hortik sortu, iraganeko ereduak errepikatu beharrean.

Metodologia horri esker, honako hauek lortu ditugu:

| Ikuspegi parte-hartzailea

U teoriak parte-hartze handiko prozesu bat sortzera bultzatu gaitu, non alderdi interesdun guztien ahotsak entzun eta baloratu diren.

| Etorkizunarekiko lotura

Plangintza tradizionaletik harago joateko aukera eman digu, etorkizuneko ikuspegi inspiratzaile batekin eta gure balioekin lerrokatuta.

| Berrikuntza eta sormena

Idea berritzaileak sortzea eta aurrean ditugun erronketarako sormenezko irtenbideak proposatzea sustatu du.

| Eraldaketa sakona

Gure pentsatzeko eta jarduteko modua eraldatzen lagundu digu, lankidetzaren, ikaskuntzaren eta etengabeko hobekuntzaren kultura sortuz.

Plan Estrategikoa egiteko, honako fase hauei jarraitu zaie:

1. FASEA. ENTZUTE AKTIBOA ETA BEHAKETA

Prozesuaren fase honetan, eskuragarri dagoen informazio guztia entzun, behatu eta aztertu da, abiapuntuko egungo errealitatea ezagutzeko.

Funtsezko hainbat informazio-iturri aztertu ditu:



Osasun-sistema

Osasun Sailaren Esparru Estrategikoa eta Osakidetza Plan Estrategikoa. Korporazio-mailan definitutako ildoan azterketa eta azken aldian egindako hedapena.



Barne-analisia

1. Gure erakundearen 2019-2024 Plan Estrategikoaren emaitzak eta itxiera. Plan horrek bere bizi-ziklo naturala luzatu zuen (4 urte), eta 5 urtera atzeratu zen, 2020ko pandemiaren ondorioz.

2. Gure erakundearen aginte-koadro integrala eta Programa-kontratua

3. Erakundearen **arrisku** estrategikoak.



Interes-taldeak

- 1. Pazienteen ahotsaren** txostena, besteak beste, inkestei, pazienteen esperientzia-lantegiei, kexei eta erreklamazioei buruzko informazioa jasotzen duena.
- Zerbitzu, osasun-material, ekipamendu eta farmazia-produktuen funtsezko **hornitzaileei** egindako inkesta.
- 3. Gizarteari** zuzendutako inkesta. Ezkerralde Enkarterri Gurutzetako ESlak eragiten dien kanpoko eragile guztiei zuzendua: udalak, probintziako zein autonomia-erkidegoko erakunde publikoak, pazienteen elkarteak, beste elkarte batzuk, GKEak eta irabazi-asmorik gabeko fundazioak, enpresa laguntzaileak, egoitzak eta etxebizitza komunitarioak, zentro teknologikoak...
- Sektoreko eta, oro har, gizarteko **joerei** buruzko txostena, bai eta txosten horretatik abiatuta EEGESiko profesionalekin eta pazienteen elkarten parte-hartzearen egindako barne-hausnarketako dinamikaren emaitzak ere.
- 5. Profesionalak.** Kontuan hartu dira berrikuntza-kulturari buruzko inkestan, joerei eta dinamika parte-hartzaileari buruzko txostenean eta arrisku psikosozialen ebaluazioan lortutako emaitzak.
- 6. WOKA Future thinking.** Etorkizuneko pentsamenduaren metodologia aplikatuta, parte-hartzaileek (profesionalek, pazienteek eta gizarteak) adierazitako helburuak eta beharrak identifikatu dira.

Entzuteko eta behatzeko fase honetan, **80 pertsonak** baino gehiagok parte hartu dute WOKA Future Thinking proiektuan.

2. FASEA. HAUSNARKETA ETA FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

Aurrez adierazitako informazio-iturri guztietatik abiatuta, Zuzendaritza Taldeak hausnarketa eta formulazio estrategikoko prozesuari ekin zion, erakundearen Xedea definitzeko, Misioaren eta Balioen formulazioa birpentsatzeko, hurrengo 4 urteetarako Ikuspegia ezartzeko eta ikuspegi hori lortzeko Erronka eta Helburu Estrategikoak formulatzeko.

Horretarako, sormenezko eta ideiak sortzeko hainbat tresna erabili dira:

- Inspirazio-harresia, ESlaren Xedea formulatzea helburu zuena.
- Misioa zehazteko, SCAMPER tresna erabili zen.
- Joeren eta WOKAren Future Thinking txostenaren berrikuspena egin zen.
- Bidaia etorkizunera, Ikuspegia sortzeko.
- Ikuspegi horretatik abiatuta, datozen 4 urteetarako Erronka estrategikoak definituko dira.

Fase honetan, Ezkerralde Enkarterri Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko (EEG ESI) zuzendaritza-talde osoak parte hartu du.

3. FASEA. ZEHAZTAPENA ETA LEHENTASUNAK EZARTZEA

Xedearen, Misioaren, Ikuspegiaren, Balioen, Erronken eta Helburu Estrategikoen hasierako bertsiotik abiatuta, EEG ESIko profesionalei zuzendutako 3 WOKA gauzatu dira guztira, etapa berri horretako Proiektu Estrategikoen gainean lan egiteko.

Zehaztapen- eta lehentasun-fase honetan, 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute 3 WOKAtan.

Lortutako emaitzekin, proiektu estrategikoak zehaztu eta lehenetsi ahal izan dira, eta, emaitza Ezkerralde Enkarterri Gurutzetako ESlaren behin betiko plan estrategikoa izan da.



4. FASEA. HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Plan Estrategikoaren hedapena eta komunikazioa barneko eta kanpoko interes-taldeentzako komunikazio-planean jasotako jardueretan gauzatzen da.

Hedapen-ekintzetako bat da WOKA bat egitea pazienteekin, hornitzaileekin eta gizartearekin, erakundearen Plan Estrategiko berria aurkezteko.

WOKA honek bi helburu ditu: alde batetik, Plan Estrategikoaren ildo estrategiko nagusiak zabaltzea, eta, bestetik, alderdi interesdunei nola eragin diezaieketen ezagutaraztea eta lankidetzarako beharrak, itxaropenak eta aukerak identifikatzea.

Prozesu horretan guztian, EEG ESIko talde teknikoen, administratiboen eta kudeaketakoen sostengua izan du, Plan Estrategikoaren sortze-fase guztietan koordinazio-lanak eginez eta laguntza emanez.



02

**XEDEA, MISIOA,
IKUSPEGIA ETA
BALIOAK**



02. XEDEA, MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

XEDEA

Pertsonen osasuna hobetzea, etorkizuneko profesionalak prestatzea eta osasunaren gaineko ezagutza garatzea berrikuntzaren eta ikerketaren bidez.

IKUSPEGIA

Erakunde gizatiarragoa, integratuagoa, koordinatuagoa eta azkarragoa irudikatzen dugu, pazienteei arreta segurua eta baliotsua ematen diena, osasun-sisteman erreferentea dena, asistentzia-konplexutasunean, irakaskuntzan eta ikerketan liderra dena, jasagarritasuna bermatzen duena eta talenturik onena erakartzeko eta atxikitzeko ingurune erakargarria sortzen duena.

MISIOA

Pertsonen osasuna prebenitzea, zaintzea eta hobetzea modu integratuan, seguruan eta konplexutasunean erreferentea izanik, haien parte-hartzearekin, talde profesional konprometituekin eta gizarteari balioa emanez.



BALIOAK

Profesionaltasuna eta bikaintasuna

Arduratsuak gara, ezagutza eta esperientzia ditugu, eta grinaz inplikatzeko gara gure lanean. Etengabe saiatzen gara osasun-emaizak hobetzen, etengabeko ikaskuntzaren, zorrotasunaren eta bikaintasunaren bilaketaren bidez.

Taldea eta elkarlana

Helburu komunak indarrean eta gure erakundearen barruko zein kanpoko koordinazioan sinesten dugu. Gure taldeak elkarrekiko errespetuan, komunikazio irekian, konfiantzan, eskuzabaltasunean eta erantzukizun partekatuan oinarritzen dira, talde-lanak emaitzak biderkatzen dituela jakinda.

Gizarte Erantzukizuna eta Konpromisoa

Pertsonen osasuna hobetzearekin, osasun-sistemaren jasagarritasunarekin eta gizartearen ongizatearekin konprometitu gaude. Gardentasunez jokatu dugu, gure ekintzen eragina ebaluatzen dugu eta akatsetatik ikasten dugu eraginkortasuna eta jasagarritasuna bermatzeko.

Bizkortasuna eta moldagarritasuna

Azkar eta eraginkortasunez jarduten dugu ingurune aldakor batean, eta eraldaketaren buru gara, metodologia arinen eta jarrera proaktiboaren bidez. Egokitzeko gaitasuna sustatu dugu etengabeko hobekuntzaren eta eraginkortasunaren motor gisa.

Hurbiltasuna, humanizazioa eta aniztasuna

Errespetuan, irisgarritasunean, konfiantzan eta inklusioan oinarritutako harremanak sustatu ditugu. Gure ikuspegi humanizatuak pertsonak jartzen ditu gure ekintzen erdigunean, pazienteen lehentasunezko hizkuntzan tratatu bero eta enpatikoa bermatuz, eta aniztasun kultural, sozial eta pertsonala errespetatuz.

Berrikuntza eta irekitasuna

Sormena, ezagutza partekatua eta beste eragile batzuekiko lankidetzak sustatu ditugu, balioa emango duten eta sistemaren eta gizartearen beharrei erantzun dieten konponbideak diseinatzeko. Uste dugu berria aukera bat dela eboluzionatzeko eta etorkizunerantz aurrera egiteko, konfiantza eta ausardiarekin.

Erreferentzialtasuna eta abangoardia

Konplexutasun handiko arretaren erreferente gisa nabarmentzen gara, prestigioz eta bikaintasunez lideratuz. Ezagutzaren eta berrikuntzaren mugan lan egiten dugu, osasun-sistemaren abangoardian mantenduz.

A close-up photograph of a doctor in a white lab coat holding the hand of an elderly patient. The doctor's hand is on top, and the patient's hand is on the bottom. The background is a blurred hospital room with medical equipment and a window. The lighting is soft and warm.

03

ERRONKA ESTRATEGIKOAK

03. ERRONKA ESTRATEGIKOAK

Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratuaren Plan Estrategikoa lau urterako definitu da, eta 6 erronka estrategiko handitan egituratuta dago.

1. GOBERNANTZA AURRERATUA

ESlaren kudeaketa eta antolaketa indartzea, bikaintasuneko, berrikuntzako eta eraldaketa digitaleko estandarren bidez. Eraginkortasun operatiboa hobetzearen, ideia berriak sustatzearen, Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea bermatzearen eta ikerketa eta garapena sustatzearen aldeko apustua egiten da.

2. PARTE-HARTZEA, HUMANIZAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ARRETA

Pazienteek eta herritarrek ESlaren plangintzan eta hobekuntzan parte har dezaten bultzatzea. Humanizazioko, irisgarritasuneko eta partaidetza-metodologietako estrategien bidez, pertsonarengan ardaztutako arreta enpatiko eta inklusiboagoa bermatu nahi da. Osasun-hezkuntzako ekimenak eta erabaki partekatuak hartzeko tresnak sustatuko dira.

3. EGUNGO ETA ETORKIZUNeko PROFESIONALAK

Egungo eta etorkizuneko belaunaldien profesionalen garapena eta ongizatea. Etengabeko prestakuntzan, talentuaren garapenean eta lan-baldintzen hobekuntzan lan egingo da, gaitasun handiko profesionalak erakartzeko eta atxikitzeko. Gainera, indartu egingo dira haien lanaren aintzatespena, genero-berdintasuna, lan-ingurunearen humanizazioa eta diziiplina anitzeko taldeen integrazioa.



4. OSASUN-EMAITZAK HOBETZEA


Osasun-arreta segurua, eraginkorra eta balioan oinarritua bermatu nahi da, tratamenduak egokiak eta pertsonalizatuak direla ziurtatuz. Kalitate asistentzialeko, infekzioen prebentzioko eta jardunaren etengabeko ebaluazioko estrategiak ezarriko dira. Gainera, ebidentzian oinarritutako medikuntza indartuko da.

5. HURBILEKO ARRETA IRISGARRIA

Osasun-zerbitzuetarako irisgarritasuna hobetzea, arreta integratuko ereduen eta sare asistentzial koordinatuen bidez. Lehen mailako arreta eta gaixotasunen prebentzioa lehenesten dira, pazienteak erdigunean duen ikuspegia ziurtatuz. Digitalizazioa eta erabiltzaileekiko komunikazioaren berrikuntza ere sustatuko dira.

6. ESPEZIALIZAZIO ETA ERREFERENTZIALTASUN HANDIA

Funtsezko hainbat arlotan erreferentzia-zentro gisa sendotzea, bikaintasun-unitateak indartuz, onkologian aurrera eginez eta zerbitzu tradizioaletan baino ezagutzarlotan oinarritutako ikuspegia sustatuz. Gaixotasun arraroetan edo minoritarioetan espezializatzea bultzatuko da, baita terapia berritzaileen ikerketa eta aplikazioa ere.



04

**ERRONKEN HEDAPENA
HELBURU ETA PROIEKTU
ESTRATEGIKOETAN**

04. ERRONKEN HEDAPENA HELBURU ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAN

1. ERRONKA ESTRATEGIKOA. GOVERNANTZA AURRERATUA

ESlaren kudeaketa eta antolaketa indartzea, bikaintasuneko, berrikuntzako eta eraldaketa digitaleko estandarren bidez. Eraginkortasun operatiboa hobetzearen, ideia berriak sustatzearen, Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea bermatzearen eta ikerketa eta garapena sustatzearen aldeko apustua egiten da.



1.1. Kudeaketa aurreratua

JCIrekin bat datozen bikaintasun-estandarrek mantentzea eta osasun-sistemaren efizientzia eta eraginkortasuna hobetzeko kudeaketa-ereduak finkatzea.

- 1.1.2. *Kudeaketa aurreratuaren eredua*
- 1.1.3. *Kalitate-egiaztapenak eta -ziurtagiriak finkatzea*
- 1.1.4. *Gobernantza, lidergoa eta zuzendaritza, Joint Commission estandarren arabera (GLD)*
- 1.1.5. *Pazientearen kalitatea eta segurtasuna hobetzea, Joint Commission estandarren arabera (QPS)*

1.2. Errendimendua hobetzea ESIan

Asistentzia-prozesuen kudeaketa azkarra eta eraginkorra txertatzea.

- 1.2.1. *Prozesuen automatizazioa*
- 1.2.2. *Aginte-taula integrala*
- 1.2.3. *Asistentzia- eta ekonomia-errendimendua monitorizatzea*

1.3. Berrikuntza eta sormena

Idea eta ikuspegi berriak sustatzea osasun-zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

- 1.3.1. *EEGESlaren Berrikuntza Plana*
- 1.3.2. *Berrikuntza- eta sormen-kultura*
- 1.3.3. *Future Thinking*
- 1.3.4. *Teknologia eta metodologia berrien esplorazioa*
- 1.3.5. *Proiektu berritzaileen transferentzia*

1.4. Eraldaketa digitala

Konponbide digitalak ezartzea prozesuak optimizatzeko eta pazienteen arreta hobetzeko.

- 1.4.1. *Informazioaren kudeaketa, Joint Commission estandarren arabera (MOI)*
- 1.4.2. *Pazienteekiko interakzio digitala*
- 1.4.3. *Profesionalen interakzio digitala: tresna asistentzialak*
- 1.4.4. *Profesionalen interakzio digitala: zerbitzu/unitateen barne-kudeaketa hobetzea*
- 1.4.5. *AAko eta Big Datako tresnak*

1.5. Jasangarritasuna eta GJH-ak

Jardunbide jasangarriak integratzea eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat egitea, osasunean eta ingurumenean eragin positiboa izateko.

- 1.5.1. *Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)*
- 1.5.2. *Ekonomia zirkularra*
- 1.5.3. *Ingurumena Kudeatzeko Plana*
- 1.5.4. *Jasangarritasuna eta efizientzia operatiboa*

1.6. Ikerketa eta garapena

Ikerketa aurreratua eta teknologia eta tratamendu berrien garapena sustatzea.

- 1.6.1. *Giza subjektuekin egindako ikerketa-programak, Joint Commission estandarren arabera (HRP)*

1.7. Azpiegituren eraldaketa eta berrikuntza teknologikoa

Azpiegitura eta ekipamendu teknologikoen eraldaketa eta modernizazioa bultzatzea, nazioarteko kalitate- eta segurtasun-estandarrekin bat datorren plangintza estrategiko baten bidez.

- 1.7.1. *Instalazioen kudeaketa eta segurtasuna, Joint Commission estandarren arabera (FMS)*
- 1.7.2. *Azpiegitura Plana 25-28*
- 1.7.3. *Teknologia txertatzeko plana 25-28*

2. ERRONKA ESTRATEGIKOA. PARTE-HARTZEA, HUMANIZAZIOA ETA ANIZTASUNAREN ARRETA

Pazienteek eta herritarrek ESlaren plangintzan eta hobekuntzan parte har dezaten bultzatzea. Humanizazioko, irisgarritasuneko eta partaidetza-metodologietako estrategien bidez, pertsonarengan ardaztutako arreta enpatiko eta inklusiboagoa bermatu nahi da. Osasun-hezkuntzako ekimenak eta erabaki partekatuak hartzeko tresnak sustatuko dira.



2.1. Entzute aktiboa eta pazienteen parte-hartzea

Pazienteak eta herritarrak asistentzia-prozesuan eta osasun-zerbitzuen kudeaketaren hobekuntzan inplikatzeko, lankidetzak aktiboa eta erabakiak modu partekatuan hartzea sustatuz. Pazienteen iritziak, beharrak eta igurikimenak zuzenean eta modu pertsonalizatuan jasotzeko tresnak eta kanalak ezartzea. Pazienteen elkarteekin lankidetzak egituratua, lehentasunak identifikatzeko eta erabakiak hartzen parte har dezaten sustatzeko.

2.1.1. *Pazienteen Partaidetzarako Batzorde Estrategikoa*

2.1.2. *Pazienteen elkarteekiko lotura*

2.1.3. *Osasun ulergarria*

2.2. Herritarren eta kanpoko eragileen inplikazioa

Estrategiak garatzea herritarrak oro har inplikatzeko osasun-zerbitzuen plangintzan eta hobekuntzan. Elkarriketarako gune irekiak sortzea (fisikoak eta birtualak), herritarrek osasun-arretari buruz duten pertzepzioa jasotzeko.

2.2.1. *Kanpoko eragileekiko lankidetzak-sarea*

2.2.2. *Metodologia parte-hartzailea*

2.3. Humanizazioa eta aniztasunarekiko arreta

Osasun-zerbitzuak irisgarriak, enpatikoak eta errespetuzkoak direla ziurtatzea, arreta-esperientzia gizatiarragoa eta hurbilagoa sustatuz.

2.3.1. *ZUREKIN Humanizazio Plana*

2.3.2. *Pertsonarengan ardaztutako arreta, Joint Commission estandarren arabera (PCC)*

2.3.3. *Asistentzia-inklusioa eta -aniztasuna*

2.3.4. *Euskara Plana*

3. ERRONKA ESTRATEGIKOA. EGUNGO ETA ETORKIZUNeko PROFESIONALAK

Egungo eta etorkizuneko belaunaldien profesionalen garapena eta ongizatea. Etengabeko prestakuntzan, talentuaren garapenean eta lan-baldintzen hobekuntzan lan egingo da, gaitasun handiko profesionalak erakartzeko eta atxikitzeko. Gainera, indartu egingo dira haien lanaren aintzatespena, genero-berdintasuna, lan-ingurunearen humanizazioa eta diziplina anitzeko taldeen integrazioa.



3.1. Talentua garatzea eta atxikitzea

Etengabeko garapena eta talentu berrien erakarpena sustatzea, bai eta profesionalak atxikitzea ere, hazteko eta aintzatesteko aukeren bidez.

- 3.1.1. *Profesionalei harrera egitea*
- 3.1.2. *Etengabeko prestakuntza eta garapena*
- 3.1.3. *Garapen profesionalerako aukerak*
- 3.1.4. *Lidergo eraldatzailea*

3.2. Rol kritikoak bermatzea

Osasun-sistemaren barruan rol kritikoak identifikatzea eta laguntzea, eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar diren baliabideak dituztela bermatuz.

- 3.2.1. *Langileen kualifikazioak eta heziketa*
Joint Commission estandarren arabera (SQE)
- 3.2.2. *Bikaintasuna superespezializazioan*

3.3. Irakaskuntza

Irakaskuntza eta prestakuntza bultzatzea, osasun-profesionalak beti eguneratuta eta ondo gaituta daudela ziurtatzeko.

- 3.3.1. *Medikuntzako hezkuntza profesionala,*
Joint Commission estandarren arabera (MPE)
- 3.3.2. *Pazientearen segurtasunarekin lotutako*
programetan prestakuntza sustatzea

3.4. Profesionalen esperientzia hobetzea

Osasun-langileen esperientzia profesionala baloratzea eta hobetzea, lan-ingurune positiboa eta atsegina sustatuz. Taldeen ongizate fisiko, mental eta emozionala lehenestea, haien osasun integrala eta laneko gogobetetasuna sustatzen duten programak, baliabideak eta estrategiak ezarriz. Lidergo-eta kudeaketa-trebetasunen garapena bultzatzea, erabakiak hartzeko eta erakundearen aurrerapenean laguntzeko duten gaitasuna indartuz.

- 3.4.1. *Profesionalen esperientzia-metodologia*
- 3.4.2. *Wellness profesionala*
- 3.4.3. *Autobabes-planen hedapena sustatzea*
- 3.4.4. *Profesionalak aitortzeko ekintzak sustatzea*

3.5. Berdintasuna

ESlaren berdintasun-plana ezartzea.

- 3.5.1. *ESlaren Berdintasun Plana hedatzea*

4. ERRONKA ESTRATEGIKOA. OSASUN-EMAITZAK HOBETZEA

Osasun-arreta segurua, eraginkorra eta balioan oinarritua bermatu nahi da, tratamenduak egokiak eta pertsonalizatuak direla ziurtatuz. Kalitate asistentzialeko, infekzioen prebentzioko eta jardunaren etengabeko ebaluazioko estrategiak ezarriko dira. Gainera, ebidentzian oinarritutako medikuntza indartuko da.



4.1. Asistentzia-jarduera bikaina eta segurua

Asistentzia-arreta segurua, jarraitua eta kalitatezkoa bermatzea, Joint Commission-en nazioarteko estandarren arabera.

- 4.1.1. Arretaren irisgarritasuna eta jarraitutasuna, Joint Commission estandarren arabera (ZBO)
- 4.1.2. Pazienteen arreta Joint Commission estandarren arabera (COP)
- 4.1.3. Pazienteen ebaluazioa Joint Commission estandarren arabera (AOP)
- 4.1.4. Anestesia eta arreta kirurgikoa Joint Commission estandarren arabera (ASC)
- 4.1.5. Medikamentuen kudeaketa eta erabilera, Joint Commission estandarren arabera (MMU)

4.2. Balioan oinarritutako arreta garatzea

Emaita klinikoak (CROM) eta pazienteek jakinarazitakoak (PROM) hobetzea, kostuak eraginkortasunez kudeatuz balioa maximizatzeko.

- 4.2.1. Balioan oinarritutako arreta-proiektuak ezartzea (ABV)
- 4.2.2. Gaixotasunaren kostua

4.3. Pazientearen segurtasuna

Pazientearen segurtasuna bermatzea, arriskuak eta arreta-akatsak murriztuko dituzten praktiken eta protokoloen bidez.

- 4.3.1. EEGESlaren segurtasun-estrategia
- 4.3.2. Nazioarteko jomugak pazientearen segurtasunerari begira (IPSG) JCI
- 4.3.3. Infekzioen prebentzioa eta kontrola (PCI) JCI
- 4.3.4. Kontingentzia-planak

4.4. Praktika asistentziala egokitzea

Tratamenduak eta prozedurak paziente bakoitzarentzat egokiak direla ziurtatzea, baliabideak gehiegi edo gutxiegi erabiltzea saihestuz.

- 4.4.1. MAPAC estrategia
- 4.4.2. Medikamentua zentzuz erabiltzea
- 4.4.3. BPSO estrategia

5. ERRONKA ESTRATEGIKOA. HURBILEKO ARRETA IRISGARRIA

Osasun-zerbitzuetarako irisgarritasuna hobetzea, arreta integratuko ereduen eta sare asistentzial koordinatuen bidez. Lehen mailako arreta eta gaixotasunen prebentzioa lehenesten dira, pertsona erdigunean duen ikuspegia ziurtatuz. Digitalizazioa eta erabiltzaileekiko komunikazioaren berrikuntza ere sustatuko dira.



5.1. Arreta integratua

Pazienteen arretan jarraitutasuna eta koherentzia bermatuko duten prozesu integratuak ezartzea eta hobetzea, bai lehen mailako arretan, bai ospitaleko arretan. Horren baitan sartzen da osasun-zerbitzuak eraginkortasunez koordinatuko dituen arreta integratuko ikuspegia garatzea, gaixotasunen prebentzioari eta tratamenduari heltzeko.

5.1.1. *Ibilbide asistentzial integratuak*

5.1.2. *Trantsizio sanitarioak eta asistentzia-mailen arteko komunikazioa*

5.1.3. *Koordinazio soziosanitarioa*

5.2. Kronikotasunari arreta

Gaixotasun kronikoak eraginkortasunez kudeatzeko programa espezifikoak ezartzea, etengabeko jarraipen pertsonalizatua eskainiz. Paziente kronikoentzako arreta-ibilbideak sortzea eta optimizatzea, tratamendu egokia une egokian jasotzen dutela bermatuz.

5.2.1. *Kronikotasunaren ibilbide asistentzialak*

5.2.2. *Pazientearen ahalduntzea*

5.2.3. *Haurrak eta gazteak*

5.2.4. *Osasun mentala*

5.3. Gaixotasunaren prebentzioa

Detekzio goiztiarreko, osasun-hezkuntzako eta arriskuak murrizteko programak bultzatzea, ahalduntzea eta bizi-ohitura osasungarriak lehenetsiz.

5.3.1. *Prebentzioa Lehen Mailako Arretan*

5.3.2. *Prebentzio-kanpaina korporatiboak*

5.3.3. *Bizi-ohitura osasungarriak*

5.4. Osasuna sustatzea eta esku-hartze komunitarioa

komunitate ezberdinetan osasuna eta ongizatea sustatzen duten esku-hartze komunitarioko programak garatzea eta horietan aurrera egitea, haien aniztasuna eta premia espezifikoak errespetatuz.

5.4.1. *Arreta Komunitarioko Estrategia*

5.4.2. *Osasuneko tokiko sareak*

5.4.3. *Farmazia komunitarioa*

6. ERRONKA ESTRATEGIKOA. ESPEZIALIZAZIO ETA ERREFERENTZIALTASUN HANDIA

Funtsezko hainbat arlotan erreferentzia-zentro gisa sendotzea, bikaintasun-unitateak indartuz, onkologian aurrera eginez eta zerbitzu tradizioaletan baino ezagutza-arloetan oinarritutako ikuspegia sustatuz. Gaixotasun arraroetan edo minoritarioetan espezializatzea bultzatuko da, baita terapia berritzaileen ikerketa eta aplikazioa ere.



6.1. Erreferentzialtasuna patologia konplexuetan

Patologia konplexuak tratatzeko eta maneiatzeko erreferente bihurtzea, arlo horietan bikaintasuna eta lidergoa ziurtatuz.

6.1.1. Bikaintasun-unitateak

6.2. Plan Onkologiko Integrala

Plan onkologiko bat garatzea eta gauzatzea, erakundea liderra izan dadin minbiziaren prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan.

6.2.1. Euskadiko Plan Onkologiko Integralaren hedapena POIE 2025-2030

6.2.2. Prozesu onkologikoari diziiplina anitzetatik heltzea

6.2.3. Konplexutasun handiko eta prebalentzia txikiko prozesu kirurgikoen kontzentrazioa

6.2.4. Medikuntza pertsonalizatua, terapia aurreratuak eta tumore arraroei eta konplexuei aurre egitea bultzatzea

6.2.5. Tratamendu onkologikoak etxean ematea

6.3. Funtsezko ezagutza-arloak

Funtsezko ezagutza-arloetan espezializazio handia sustatzea, profesionalen arretan eta etengabeko prestakuntzan bikaintasuna bermatuz.

6.3.1. Asistentzia ezagutza-arloen arabera berrantolatzea

6.4. Gaixotasun minoritarioen arreta

6.4.1. Diziiplina anitzeko taldeak

6.4.2. Nazioarteko lankidetzak

